



## “Eliza guztiei diet nazka, amorrua eta nahi duzun guztia”

Imanol Alvarez | Entendimenduz jantzia

Kurt Cobainek gezurra esan zigun: inor ez da gay.

UNAI BREA

Argazkia: Iñigo Azkona

### **Zeure burua definitzeko hitz zerrenda bat eman behar bazenu, zenbatgarrena izango litzateke gay?**

Agian agertu ere, ez luke agertu behar. “Gay” hori izan da erabili behar izan dugun adjektiboa –sustantibo modura ez zaigu inoiz gustatu– jendeari momentu batean ulertarazteko zer esan nahi genuen azalpen luzeegirik eman gabe. Baina berez, pentsatzen dut inor ez dela ez “homo” ez “hetero”, beraz ez gay eta ez ezer.

### **EHGAM elkartearen izenean ez da ageri “lesbiana” hitza. Sexismoa! Eskandalua!**

Egia, baina nork maskulinizatu du gay hitza? Guk ez.

### **Gero eta jende gutxiagok nahi du ezkondu, eta zuek ezkontzeko eskubidea aldarrikatzen...**

Horixe, eskubidea, ez ezkontza bera.

### **EAEko Arartekoa Iñigo Lamarca izateak zer onura ekarri dizue?**

Bat ere ez.

...

A, gehiago esatea nahi duzu? Bada, ez onurarik, ezta kontrakoa ere. Iñigo Lamarca ez du ezer egin gure alde, ez EHGAM bezala, ez gay bezala, baina gure kontra ere ez du egin, agerian behintzat.

### **Ekainaren 28ko manifestazioetan batzuek duten itxura ikusita, zelan nahi duzue gizarteak serio hartzea zuen aldarrikapenak?**

Euskal Herrian oso lelo ezaguna izan da “jai

eta borroka”, eta ni bat nator lelo horrekin. Kontua da jaiak ezin duela ostendu, ezkutatu, deuseztu... errebindikazioa, errebindikazioa oraindik beharrezkoa delako. Hori gertatzen denean, alarma gorriak pizteko garaia da. Euskal Herrian ez dut uste piztu denik oraindik, nahiz eta alarmistaren bat badagoen.

### **Kolore gehiegi eta mami gutxiegi?**

Kolore gehiegi, inoiz ez. Mami gutxiegi? Agian. Baina oraindik eta hemen, ez. Oraindik.

### **“Giro”-ko tabernetako gela ilun horiek...**

Gizartea hipokrita hutsa da oro har. Gizarteari larrutan egitea izugarri gustatzen zaio, baina portzentaje handi bat ez da ausartzen, eta amorrua ematen dio beste batzuek lotsa gabe egiteak.

### **EAEko gobernu aldatzuek mesede egingo zizuen, ezta? Eskuma kristautik ezkertera pasatu gara...**

Euskaldun modura gobernu aldaketa hondamendia izan da, adar-jotze hutsa izan delako, eta adar-jotze hitza goxoegia da. Hori ahaztea posible banu, eta ez dut, berez aldaketa onuragarria izan liteke, keinu batzuk egon dira. Lehendakariak, lehen aldiz, ez du zin egin Bibliaren eta gurutzearen gainean.

### **Eta zuk, bekatari horrek, noiz zapaldu zenuen azkeneko aldiz eliza bat?**

Askotan zapaltzen ditut elizak, nolakoak diren ikusteko eta artistikoki balioa badute. Bestela, instituzio modura, eliza guztiei diet nazka, amorrua eta nahi duzun guztia. ■